| | |
|---|---|
| **2018KO URTARRILAREN 31N, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**<br><br>**=============================**<br><br>**<u>BERTARATUAK</u>**<br><br>**<u>LEHENDAKARIA</u>** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 31 DE ENERO DE 2018.**<br><br>**=============================**<br><br>**<u>ASISTENTES</u>**<br><br>**<u>PRESIDENTE</u>** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **<u>ALKATEORDEAK</u>** | **<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>** |

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| | |
|---|---|
| **<u>ZINEGOTZIAK</u>** | **<u>C O N C E J A L E S</u>** |

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)

Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**1.- GETXOKO UDALBALTZAK 2017KO ABENDUAREN 27AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 27 DE DICIEMBRE DE 2017.**

2017ko abenduaren 27an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Por unanimidad se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 27 de diciembre de 2017

**OGASUNA, KONTUAK,**

**HACIENDA, CUENTAS,**

**EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**2.- AURREKONTUAREN ALDAKETAK FINANTZATZEKO ASMOZ 2016KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA 2017KO DENBORALDIAN (LEHEN, BIGARREN, HIRUGARREN ETA LAUGARREN HIRUHILEKOETAN) GASTU OROKORRETARAKO ERABILTZEA DELA ETA, FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN 2/2018 ZENBAKIDUN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

1.- Udaleko Kontu-hartzailetzak finantza iraunkortasunari buruz egindako urtarrilaren 18ko 2/2018 txostenaren edukiaren jakitun egon diruzaintzako geldikina erabiltzeari dagokionez, 2017an (lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan), aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

2.- 2/2018 txosten hori Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailari igortzea, osoko bilkuraren akta eta euskarri izan daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

**3.- 5307/2017 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN**

**PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**2.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME 2/2018 DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA EN RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN, DURANTE EL CORRESPONDIENTE PERIODO DEL EJERCICIO 2017 (PRIMER, SEGUNDO, TERCER Y CUATRO TRIMESTRE), DEL REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES OBTENIDO EN LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2016 PARA FINANCIAR MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

1º.- Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 2/2018, de 18 de enero, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización del remanente de tesorería para financiar modificaciones presupuestarias durante el 2017 (primer, segundo, tercer y cuarto trimestre).

2º.- Remitir dicho informe Nº 2/2018, junto al acta de la sesión del Pleno y demás documentación que sirva de soporte, al Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

**3.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 5307/2017 DE MODIFICACIÓN**

**BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

5307/2017 zenbakidun Dekretua 117.865,88 euroko zenbatekoarekin. 2017/03F kreditua gaitzea. Gizarte Larrialdiko Laguntzak, 2017 urtea.

**4.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ BALIATUTA ALDARAZI.**

Proposamena irakurri ondoren, Eduardo Andradek bere kexa agertu du kreditu gehigarriak Alkatetza Dekretuaren bidez onesten direlako, horiek eztabaidatzeko asmoz Osoko Bilkuraren bileretan aurkeztu beharrean, beste aldi batzuetan egin den bezala. Nabarmendu du Romo Kultur Etxeko ostalaritzako ekipamenduari buruzko 4245 zenbakiko kredituak adierazten omen duela, inaugurazio datari eutsiz gero, ostalaritzako ekipamendurik gabe inauguratuko dela, eta horri buruzko azalpenak eskatu ditu.

Inazio Uriartek erantzun du onetsi diren kreditu gehigarriak badirela proiektuetan azkarrago aurrera egiteko behar direnak, eta esan du Alkatetza Dekretuaren bidez Osoko Bilkuraren bidez baino azkarrago tramitatzen

**PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

Decreto nº 5307/2017 por un importe de 117.865,88 euros. Habilitación de crédito 2017/03F. Ayudas de emergencia social año 2017.

**4.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade para manifestar su queja porque los créditos adicionales se aprueban por Decreto de la Alcaldía en lugar de traerse al Pleno para su debate como otras veces se ha realizado. Recalca que el crédito número 4245 relativo al equipamiento hostelería Romo Kultur Etxea parece indicar que si se mantiene la fecha de inauguración se va a inaugurar sin equipamiento hostelero y pide aclaraciones.

Inazio Uriarte replica que los créditos adicionales aprobados son los que se necesitaba agilizar para avanzar en los diferentes proyectos e indica que por Decreto de Alcaldía se tramitan de manera más rápida que por el Pleno.

direla. Esandakoa eskertu du, eta aitortu du Osoko Bilkura kreditu gehigarriak onesten ari dela, baina organo bat ala bestea aukeratzeko oinarria inbertsioa azkartu beharrean datzala.

Agradece la intervención y reconoce que el Pleno está aprobando créditos adicionales pero que la diferencia de órgano se basa en función de la necesidad de agilizar la inversión.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

4240//2017 zenbakidun Dekretua 214.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/47. Mugikortasuna Sarrikobaso kalean eta irisgarritasuna Zugazarteko oinezkoen ibilbideetan hobetzeko.

Decreto nº 4240//2017 por un importe de 214.000,00 euros. Crédito adicional 2017/47. Mejora de la movilidad en la calle Sarrikobaso y mejora de la accesibilidad en itinerarios peatonales de Zugazarte.

4245///2017 zenbakidun Dekretua 60.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/48. Romo Kultur Etxeko ostalaritza-ekipamendua.

Decreto nº 4245//2017 por un importe de 60.000,00 euros. Crédito adicional 2017/48. Equipamiento hostelería Romo Kultur Etxea.

4337//2017 zenbakidun Dekretua 32.400,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/49. ESEPen garapena.

Decreto nº 4337//2017 por un importe de 32.400,00 euros. Crédito adicional 2017/49. Desarrollo ESEP.

4481//2017 zenbakidun Dekretua 25.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/50. Udal eraikinen mantentze lanak.

Decreto nº 4481//2017 por un importe de 25.000,00 euros. Crédito adicional 2017/50. Trabajos de mantenimiento de edificios municipales.

4592//2017 zenbakidun Dekretua 50.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/51. 2. kapituluko jarduketak urte amaierara arte, bide publikoen programan.

Decreto nº 4592//2017 por un importe de 50.000,00 euros. Crédito adicional 2017/51. Actuaciones del capítulo 2 hasta final de año en el programa Vías Públicas.

5093//2017 zenbakidun Dekretua

Decreto nº 5093//2017 por un importe

100.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/53. I. kapituluko beharrizanak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-sarreren defizita konpentsatzea.

de 100.000,00 euros. Crédito adicional 2017/53. Residencia Municipal de Getxo: necesidades del capítulo I y compensación del déficit de ingresos de la Diputación Foral de Bizkaia.

5225//2017 zenbakidun Dekretua 79.973,18 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2017/55. Kreditu Gehigarria 2017/55. 2017. urteko gizarte larrialdiko laguntzak finantzatzea.

Decreto nº 5225//2017 por un importe de 79.973,18 euros. Crédito adicional 2017/55. Financiación de las ayudas de emergencia social del año 2017.

**5.- KREDITUAREN GAIKUNTZA EMATEA ONESTEA: 2. ETA 4. KAPITULUAREN GASTU DESBERNINETARAKO.**

**5.- APROBACIÓN DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO PARA DIVERSOS GASTOS DE CAPÍTULO 2 Y 4.**

Proposamena irakurri ondoren, alkateak esan du EH Bilduk bi ekarpen egin dituela; Udaleko Kontu-hartzailetzak horiei buruzko txostena egin ondoren, osoko zuzenketatzat eta zuzenketa partzialtzat jo dira, hurrenez hurren.

Tras darse lectura a la propuesta el Alcalde indica que ha habido dos aportacones de EH Bildu, que tras haber sido informadas por la Intervención municipal, al final han sido calificadas como una enmienda a la totalidad y una enmienda parcial, respectivamente.

Nerea Guijarrubiak adierazi du Ogasuneko Informazio Batzordearen azken bileran EH Bilduk proposamenaren destinoak bereizita bozkatzea proposatu zuela, eta beraiek ere bat egiten dute iritzi horrekin, eta horretan oinarritzen dira bai boto partikularra bai ondoko zuzenketa. Ez zaie bidezkoa iruditzen kreditu gaikuntza berean programa oso ezberdinen aurrekontu destinoak gehitzea, bereizita bozkatzeko aukera kenduta. Batzordean ez zen proposamen hori onartu, eta horrek boto partikularra eta zuzenketa partziala eragin ditu. Gaikuntza batzuen alde daude; izan ere, horietako batzuk beraiek onetsitako aurreko erabaki batzuetatik datoz. Baina ez

Nerea Guijarrubia indica que en la última reunión de la Comisión Informativa de Hacienda EH Bildu planteó una votación separada de los diferentes destinos de la propuesta y mantienen la misma opinión y en ello se basan el voto particular y también la posterior enmienda. No les parece correcto que en la misma habilitación de crédito se incorporen destinos presupuestarios de programas muy diferentes imposibilitando votarlos separadamente. En la comisión no se admitió esta propuesta y eso ha motivado el voto particular y la enmienda parcial. Estan a favor de algunas habilitaciones, que incluso vienen de acuerdos previos que comparten, pero no apoyan otras

dituzte beste proposamen batzuk babesten, adibidez, Getxo Antzokiaren eta Getxoberriren mantentzea edo Kirolen Administrazio Orokorra finantzatzeari buruzkoak, besteak beste, hainbat alditan eman dituzten arrazoiengatik eta informazio faltagatik. Bereizita bozkatu ezin izatea ez da batere demokratikoa, eta politikari askok ez dute garbi jokatzen, eta engainuak eta abar erabiltzen dituzte oposizio politikoarekiko harremanean; horrez gain, erreferentzia etiko gisa agertu nahi dute. Aurkeztu diren kredituak kudeaketa txarraren erakusgarri dira, eta bereizita bozkatu ezin izateak eztabaidarako beldurra agertzen du. Uste du oposizioari trabak jarri nahi dizkiola, baina ez duela lortzen. Gobernu taldearen gezurrezko gardentasuna salatu du, eta uste du edozer egiteko gai direla besaulkian egoten jarraitzeko, joko zikinak barne.

propuestas como las relativas a financiar el mantenimiento del Getxo Antzokia, Getxoberri, o a la Administración General de Deportes, entre otras, por razones que han expuesto repetidas veces y también por falta de información. El no poder votar separadamente es poco democrático y ve que hay muchos políticos que juegan sucio, con engaños, etc. en su relación con la oposición política y además pretenden presentarse como referentes éticos. Los créditos que se presentan son ejemplo de una mala gestión y el no poder votar separadamente refleja el miedo al debate. Cree que busca poner en dificultades a la oposición pero no lo consigue. Denuncia la falsa transparencia del equipo de gobierno y cree que son capaces de todo, incluso de jugadas sucias para seguir en la poltrona.

Inazio Uriartek EH Bilduri erantzun dio gauzak leporatu eta iraindu besterik ez duela egiten. Gobernu taldea erabat gardena izan da. Informazio Batzordearen bileran informazioa eman zen, eta azaroan talde politiko guztiei aurkeztu zitzaien eta negoziazio fasean dagoen aurrekontu aurreproiektuan aurreikusitako edukiekin bat datoz kredituok. Kontuan hartu behar da une horretan aurrekontu luzatua dela oinarria eta, diru-sarrerak daudenez, aldaketak gehitu dira udal kudeaketa errazteko. Talde bakoitzak aurkezten diren proposamenen aurrean defendatu nahi dituen interesen alde egin beharko du.

Inazio Uriarte replica a EH Bildu que se dedica a acusar e insultar. El equipo de gobierno ha sido absolutamente transparente. Se informa en la comisión informativa y los créditos responden a contenidos previstos en el anteproyecto de presupuesto que se presentó en noviembre a todos los grupos políticos y que está en fase de negociación. Hay que tener en cuenta que en estos momentos se toma de base el presupuesto prorrogado y debido a que existen ingresos se introducen modificaciones para facilitar la gestión municipal y cada grupo se tendrá que situar con los intereses que quiere defender ante las propuestas que se presentan.

Paula Amievak esan du GUKek irizpenaren kontra bozkatuko duela, bai puntu hori bai hurrengoak 2017ko apirilean gertatutakoaren bezpera

Paula Amieva manifiesta que GUK va a votar en contra del dictamen ya que este punto y los siguientes son la antesala de lo que se vivió en abril de

baitira. Uste dute ez dela PPrekiko akordio zehatz bat, aurrekontuei buruzko benetako akordioa baizik, alde batera utzita aurrekontu bat tramitatzeko eskatzen den prozedura, osoko zuzenketak eta zuzenketa partzialak ahalbidetzen dituena. Gardentasuna prentsan ikusten da, bertan azaleratzen baitira EAJ-PNVren eta PPren arteko akordioak. EAJ-PNV gaitzetsi du, kudeatzaile ona izateaz harro agertzen baita, nahiz eta begien bistakoa izan kontrakoa. Eta adibide hau aipatu du: langileak kexatu dira balorazioaren faltagatik, hainbat urtetan bete ez dela, eta gobernu taldearen erabakiak ere ez dira bete. PPk ez du aurrekontuei buruzko itunik sinatu nahi, eta obra zehatz batzuk itundu besterik ez du egiten, nahiz eta obra horiek iraganean ainguratutako aurrekontuak izan benetan. Ez dute babestuko zinegotziei auzokoei ahotsa ematea eragozten dien jokaerarik. Uste du gobernu taldeak parte hartzeko aukera gehiago eskaini behar dituela, eta adierazi du GUKek ez duela irizpide arazorik.

2017. Prevén que no se trata de un acuerdo puntual con el PP sino un acuerdo presupuestario en toda regla, obviando el procedimiento exigible para tramitar un presupuesto que posibilite las enmiendas totales y parciales. La transparencia se ve en la prensa, donde se escenifican los acuerdos entre el PNV y el PP. Critica al PNV, que alardea de buen gestor, y se evidencia lo contrario poniendo como ejemplo las protestas de los trabajadores por la falta de la valoración, que lleva años incumpliéndose incluso los acuerdos del equipo de gobierno. El PP no quiere firmar un pacto presupuestario y se limita a pactar obras concretas pero que suponen realmente unos presupuestos anclados en el pasado. No van a avalar un proceder que impide a los corporativos dar voz a los vecinos. Cree que el equipo de gobierno debe dar más posibilidades de participación e indica que GUK no tiene problemas de criterio.

Nerea Guijarrubiak esan du, gobernu taldeak destinoak banan-banan lantzeko arazorik ez badu, ea zergatik ez dituen onartzen taldeen eskaerak. Gai guztiak batera aztertzeko arrazoia justifikatzeko eskatu die, horrela oposizioko taldeak haserrarazten baititu; izan ere, taldeek ez dituzte bat egiten destinoetako batzuekin, beste batzuk onartu arren. Hori guztia joko zikina da, eta politika mespretxugarria da. Gobernu taldeari galdetu dio zer ezkutatu nahi duen jarduketa horien atzean.

Nerea Guijarrubia manifiesta que si el equipo de gobierno no tiene problemas para tratar de uno en uno cada destino porque no asumen las peticiones de los grupos y les pide que justifiquen la razón por la que se traen todos de manera conjunta violentando a los grupos de la oposición, ya que algunos destinos no comparten y sin embargo otros apoyan y eso es juego sucio y política despreciable. Pregunta al equipo de gobierno qué quiere esconder con esas actuaciones.

Jarraian, osoko zuzenketa batek dakarren boto partikularra bozkatzeko jarri da (erregistro zk.: 2781), eta ezetsi

A continuación se somete a votación el voto particular que contempla una enmienda a la totalidad, nº de registro

egin da: aldeko 8 boto (GUK eta EH Bildu), kontrako 16 boto (EAJ-PNV, PP eta PSE-EE) eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

2781, siendo rechazada al obtener 8 votos a favor, GUK, EH Bildu; 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE; 1 abstención, Ciudadanos.

Jarraian, erregistratutako zuzenketa partziala bozkatzeko jarri da (erregistro zk.: 2914), eta ezetsi egin da: aldeko 8 boto (GUK eta EH Bildu), kontrako 16 boto (EAJ-PNV, PP eta PSE-EE) eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

A continuación se somete a votación la enmienda parcial registrada con número de registro 2914 siendo rechazada al obtener 8 votos a favor, GUK, EH Bildu; 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE; 1 abstención, Ciudadanos.

Amaitzeko, proposamena bozkatu eta emaitza hau izan da: aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE), kontrako 4 boto (GUK) eta 10 abstentzio (PP, EH Bildu eta Ciudadanos).

Finalmente se somete la propuesta a votación obteniendo el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, GUK; 10 abstenciones, PP, EH Bildu, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Onestea, kredituaren gaikuntza emateko espedientea, zk. 2018/01NF, zenbatekoa 833.720,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el expediente número 2018/01NF de habilitación de crédito, por importe de 833.720,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| **Aurrekontuko aplikazioa /** Aplicación presupuestaria | | **Programa** | **Zenbatekoa** Importe |
|---|---|---|---|
| **Kod.** / Cód. | **Izena /** Denominación | | |
| 002/2310/4800000 | Familiei<br>A familias | Gizarte ekintza eta gizarteratzea<br>Acción e integración social | 11.000,00 |
| 002/2314/4120100 | EP.Proy.Euskal Fondoari TA<br>TC a Euskal Fondoa | Garapenerako Lankidetza<br>Cooperación al Desarrollo | 8.543,00 |
| 002/2314/4810000 | Irabazi gabeko erakundei<br>Instituciones sin fines de lucro | Garapenerako Lankidetza<br>Cooperación al Desarrollo | 90.457,00 |
| 002/2314/4811300 | IAGES-EI TA. ATFAL(Pro-Sahara)<br>TC A ISFL. a Atfal (Pro-Sahara) | Garapenerako Lankidetza<br>Cooperación al Desarrollo | 6.000,00 |
| 002/3260/4310001 | Erakunde Autonomoei<br>A Organismos Autónomos | Musika Eskola<br>Escuela de Música | 40.000,00 |

| **Aurrekontuko aplikazioa /** Aplicación presupuestaria | | **Programa** | **Zenbatekoa** Importe |
|---|---|---|---|
| **Kod.** / Cód. | **Izena /** Denominación | | |
| 003/3340/4310001 | Erakunde Autonomoei<br>A Organismos Autónomos | Kulturaren sustapena<br>Promoción cultural | 58.683,00 |
| 003/3350/4810500 | IAGES-EI TA. HIRUKA<br>T.C. a ISFL HIRUKA | Euskara<br>Euskera | 62.017,00 |
| 003/3350/4810600 | IAGES-EI TA. Bertsolari Eskola<br>T.C. a ISFL Bertsolari Eskola | Euskara<br>Euskera | 13.360,00 |
| 003/3350/4810700 | IAGES-EI TA. Bizarra Lepoan<br>T.C. a ISFL Bizarra Lepoan | Euskara<br>Euskera | 6.624,00 |
| 003/3350/4813400 | IAGES-EI TA. Egizu<br>T.C. a ISFL Egizu | Euskara<br>Euskera | 15.360,00 |
| 004/3331/2120000 | Manikeria, instalazioak eta tresneria<br>RMC maquinaria, instalaciones y utillaje | Romo Kultur Etxea<br>Aula de Cultura de Romo | 29.000,00 |
| 004/3332/2279900 | Kanpoko bestelako lanak<br>Otros trabajos exteriores | Getxo Antzokia | 26.000,00 |
| 005/4330/4816900 | Serifalari-ei TA<br>TC Serifalaris | Ekonomia Sustapena<br>Promoción económica | 20.000,00 |
| 005/4330/4817001 | Getxo Enpresa-Getxo Moda-ri TA<br>TC Getxo Enpresa-Getxo Moda | Ekonomia Sustapena<br>Promoción económica | 50.000,00 |
| 007/9250/2260300 | Argitalpenak, publizitatea eta propaganda<br>Publicaciones, publicidad y propaganda | Herritarenganako arreta - Informazioa<br>Atención a la ciudadanía - Información | 182.277,00 |
| 008/3400/4310001 | Erakunde Autonomoei<br>A Organismos Autónomos | Kirolaren arloko administrazio orokorra<br>Administración general de deportes | 214.399,00 |
| | | **Kreditu gehigarria, guztira**/Total crédito adicional | **833.720**,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| Partida | **Izendapena**<br>Denominación | **Zenbatekoa**<br>Importe en € |
|---|---|---|
| 4200100 | F.A. Udalkutxa<br>D.F. Udalkutxa | **833.720,00** |

**6.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Inazio

**6.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.**

Tras darse lectura a la propuesta

Uriartek adierazi du aurkezpen orokorra egingo duela aldatu nahi diren zerga ordenantzei buruz. Trakzio mekanikoko ibilgailuei buruzko ordenantza zehatzean, familia ugarientzako hobari bat proposatu da, ibilgailu handiagoak eta zaldi-potentzia fiskal handiagoak dituztenak behar dituztelako. Gehitu beharreko hobaria % 10 eta % 90 artekoa da, famili errentaren arabera.

interviene Inazio Uriarte que indica que va a realizar una presentación de manera general de las ordenanzas fiscales que se pretende modificar. En esta concreta de tracción mecánica se plantea una bonificación a las familias numerosas que requieren de vehículos de mayor tamaño y potencia fiscal. La bonificación que se incorpora es del 10 al 90% en función de la renta familiar.

Ibon Rodríguezek esan du arrazoizkoa iruditzen zaiela gobernu taldeak onetsi duen PPren proposamena, errenta estandarizatua hartzen baitu kontuan. Halaber, EH Bilduk proposatu du hobari handiena ematea ibilgailu elektrikoengatik. Gogora ekarri du legegintzaldirako akordioa hartu zutela 2016an gobernu taldearekin. Akordio horretan, EH Bilduk tasak KPI handienarekin eguneratuko zirela bermatzen zuen, eta gobernu taldeak konpromisoa hartzen zuen krisiaren aurreko laguntzen maila leheneratzeko erakunde eta elkarteentzat. Hala ere, OHZren laguntzei eta emantzipazioari buruzko akordioak ez dira bete, aurrekontu proiektuan ez baitira agertzen. Ez dira fidatzen gero gehituko ote diren kreditu gehigarrien bidez. Azaroan gobernu taldeari galdetu zioten zer gertatuko zen tasa eta zergekin, eta horrek erantzun zien jakinaren gainean egongo zirela, baina, azkenean, Ogasuneko Batzordean izan dute proposamenaren berri eta hor ikusi dute PPrekiko akordioa. Inozoegiak izan dira gobernu taldearen aurrean, baina adierazi du garbi ez jokatzea porrot bihurtzen dela epe ertainean. Gobernu taldearen jarduketak askatasuna ematen die komenigarritzat jotzen duten moduan jokatzeko, eta uste dute hemendik gutxira PPrekiko akordio gehiago

Ibon Rodríguez manifiesta que la propuesta del PP que admite el equipo de gobierno les parece razonable porque tiene en cuenta la renta estandarizada. Por parte de EH Bildu también plantean llevar al máximo la bonificación por vehículo eléctrico. Recuerda que en el año 2016 llegaron a un acuerdo para la legislatura con el equipo de gobierno en el que EH Bildu garantizaba la actualización de las tasas con el máximo del IPC y el equipo de gobierno se comprometía a recuperar el nivel de las ayudas anteriores a la crisis a entidades y asociaciones, pero no se han cumplido los acuerdos relativos a las ayudas al IBI y a la emancipación porque no vienen reflejados en el proyecto de presupuesto. No se fían que vayan a incorporarse posteriormente mediante créditos adicionales. En noviembre preguntaron al equipo de gobierno qué iba a pasar con las tasas e impuestos y les contestaron que estarían informados, pero finalmente han conocido la propuesta en la comisión de Hacienda y han visto el acuerdo con el PP. Han pecado de inocentes ante el equipo de gobierno pero indica que no jugar limpio a medio plazo se convierte en un fracaso. La actuación del equipo de gobierno les deja libertad para actuar como entiendan conveniente y creen que dentro de poco se van a ver más

agertuko direla aurrekontuei buruz eta horiek Osoko Bilkurari aurrekontuei buruzko eztabaida lapurtzea eragingo dutela. Talde guztiek beren bidaideak hautatzeko legezkotasuna dutela aitortu du; EAJ-PNVk Espainiako eskuina aukeratu du, eta bide horretan aurrean izango du EH Bildu. Proposamenarekin ados daude, baina ez hori proposatzeko moduarekin. Hori dela eta, abstenitu egingo dira.

acuerdos presupuestarios con el PP que conducirán a que se hurte el debate presupuestario al Pleno. Reconoce la legitimidad de todos los grupos a elegir los compañeros de viaje y el PNV ha optado por la drecha española y en ese camino EH Bildu va a estar enfrente. Están de acuerdo con la propuesta pero no con el precedente de cómo se ha planteado la misma, por lo que se abstendrán.

Santiago Sainzek adierazi du bost zerga ordenantzaren proposamena Ogasuneko Batzordera heldu zenean harritu egin zela eta uste izan zuela EAJ-PNVk dena ondo lotuta zuela. Dinamika hori 2016an hasi zen EH Bildurekin, eta orain PPrekin egiten du. Udal talde guztiek parte hartzea ahalbidetzeko eskatu du, oinarri sendoak dituzten akordioak lortu ahal izateko. Ez dago ados proposamenarekin. Izan ere, egungo presio fiskala eta diruzaintzako gerakina kontuan hartuta, egokiagoa izango zatekeen presio fiskal hori txikitzea tarifak murriztuz. Uste du azterketa geldoagoa behar dela, oinarri tekniko handiagoa eta osagai politiko txikiagoa dituena. Osoko Bilkurak 2017ko azaroan lortutako akordioa, talde guztiek osatutako mahaia sortzeari buruzkoa, aldarrikatu du; oposizioak akordio hori babestu zuen, eta gobernu taldea abstenitu egin zen. Dena den, akordio hori ez da gauzatu. Osoko zuzenketa bat aurkeztu dute gauzak garatzeko moduagatik, baita beste zuzenketa partzial batzuk ere, haren ustez merkatuaren errealitatearekin eta familia ugariekin neurri handiagoan bat datozenak.

Santiago Sainz manifiesta que cuando la propuesta de cinco ordenanzas fiscales llegó a la comisión de Hacienda le sorprendió y pensó que el PNV tenía todo bien atado. Esa dinámica comenzó en 2016 con EH Bildu y ahora es con el PP y pide que se posibilite la participación de todos los grupos municipales para poder llegar a acuerdos con buenos cimientos. No está de acuerdo con la propuesta ya que lo adecuado habría sido, teniendo en cuenta la presión fiscal actual y el remanente de Tesorería, reducir la presión fiscal bajando las tarifas. Entiende que se requiere un estudio más pausado con mayor consistencia técnica y menor ingrediente político. Reivindica el acuerdo plenario de noviembre de 2017 que apoyó la oposición y se abstuvo el equipo de gobierno de crear una mesa compuesta por todos los grupos pero que no se ha materializado. Han presentado una enmienda a la totalidad por las formas en que se ha llevado y presenta otras enmiendas parciales que cree que se adecúan mejor a la realidad del mercado y las familias numerosas.

Eduardo Andradek esan du Talde Popularra pozik dagoela gobernu taldearekin akordioa lortzeagatik. Esan

Eduardo Andrade muestra la satisfacción del grupo popular en llegar a un acuerdo con el equipo de

du akordio hori garrantzitsua dela auzokoentzat: EH Bildurekiko aurreko akordioak tasak gehitzea ekarri zuen, baina oraingo honek hobekuntza dakar Getxoko herritarrentzat, eta udalerriko ekonomia- eta gizarte-garapena sustatzen du. Pozik dago tasa eta zerga guztiak izoztu direlako, inguruko udalerrietan zerga gehikuntzak egon badira ere. Tasak izotz daitezke dirubilketa hobetu delako. Horri esker, dirua auzokoen eskura geratzen da, hazkunde ekonomikoa bultzatzeko. Ideia hori da tasa eta zergei buruzko zerga akordio osoa gidatzen duena. Jarduera ekonomiko berrien ezarpenean proposatutakoaren onurak aipatu ditu adibide. Halaber, nabarmendu du proposamenak familia ugariei on egiten diela udal zerbitzuetan, famili errenta estandarizatua irizpide hartzen dela. Aurkeztutako zuzenketei dagokienez, esan du Ciudadanosen osoko zuzenketak ezin direla aintzat hartu, familia ugariak zigortzen dituztelako; horrez gain, zuzenketa partzialek ez dute ezer berririk ekarri: beste talde batzuek landutakoa kopiatu baino ez dute egiten. EH Bilduren zuzenketei dagokienez, adierazi du jada ez dutela proposatzen tasak gehitzea, eta, zaborrei buruzkoei dagokienez, gogorarazi du agiri horretan edukiontzi marroia gehitzeak bai ekarri duela kaltea auzoko guztientzat, kontratuaren gastua handitu zuen eta. Beraz, zaborrei buruzko agiriaren gaineko akordio hori txarra izan da herritarrentzat.

gobierno, un acuerdo que califica de importante para los vecinos, ya que si el anterior acuerdo con EH Bildu supuso subidas de tasas, este acuerdo es una mejoría para la ciudadanía de Getxo y potencia el desarrollo económico y social del municipio. Se alegra que la congelación de todas las tasas e impuestos se produzca frente a las realidades de incrementos impositivos en los municpios del entorno. Se pueden congelar las tasas debido a la mejora de la recaudación y esto posibilita que el dinero quede en manos de los vecinos para impulsar el crecimiento económico y esa idea es la que guía todo el acuerdo fiscal relativo a las tasas e impuestos. Pone un ejemplo de los beneficios de la propuesta en la implantación de nuevas actividades económicas. Incide también en que la propuesta beneficia a las familias numerosas en los servicios municipales, teniendo como criterio la renta familiar estandarizada. Respecto a las enmiendas presentadas manifiesta que las enmiendas a la totalidad de Ciudadanos no se pueden considerar ya que castigan a las familias numerosas y las parciales no aportan nada más que copiar lo trabajado por otros grupos. Respecto a las enmiendas de EH Bildu manifiesta que ya no plantean subir las tasas y respecto a las de basuras recuerda que incorporar en aquel pliego el contenedor marrón sí que ha supuesto un perjuicio para todos los vecinos, ya que incrementó el gasto del contrato y ese acuerdo en relación al pliego de las basuras ha sido negativo para la ciudadanía.

Susana Andollok adierazi du GUKek kontrako botoa emango diola proposamenari, Ciudadanosen osoko zuzenketarekin bat etorriz, bertan ez baitzaio behar bezala heldu zergen

Susana Andollo manifiesta que GUK votará en contra de la propuesta en sintonía con la enmienda a la totalidad de Ciudadanos ya que no se ha abordado el tema fiscal de manera

gaiari. Taldeei ez zaie denborarik eman, eta ez da kontuan hartu horien iritzia. Aldaketak Udalak egin ditu nahi izan duen moduan. Baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsonei babes handiagoa ez ematea gaitzetsi du, baita familia ugariak baino ez babestea ere; izan ere, horrela, beste familia mota batzuk eta beste kolektibo batzuk (adibidez, langile autonomoak) diskriminatzen dira.

Ibon Rodríguezek nabarmendu du ibilgailuen gaineko zergari buruzkoa dela puntua, eta ez zaborren kontratuari buruzkoa. Halaber, adierazi du ez zutela edukiontziaren modeloa babestu, baina bai agirian aipatutako gaikako bilketa. PPk beste alderdi batzuek kopiatu dutelakoan baztertzen dituen zuzenketei dagokienez, adierazi du EH Bilduk ibilgailu elektrikoari buruz aurkeztutako zuzenketa beraiek bakarrik landu duten gaia dela. Gogora ekarri du 2016an gobernu taldeak tasak eguneratzea babestu zuela, eta uste du PPren udal taldean aldaketak egon direnetik talde horri gustatzen zaiola boterera hurbiltzea, nahiz eta horretarako gezurra erabili.

Inazio Uriartek esan du onetsi beharreko ordenantzak Osoko Bilkurak zehazten dituenak eta ez gobernu taldeak zehaztutakoak izango direla. Bost ordenantza aurkeztu dira hamabi egun lehenago, eta aldaketa zehatzak dira, bi ardatz argi dituztenak: jarduera ekonomikoetarako babesa eta familia ugarientzako babesa. Ohiko prozedura arruntak talde batzuei traba egiten badie, talde horiek gonbidatu nahi ditu prozedura aldatzeko lanean sar daitezen. Uste du proposamenak erraz ulertzen direla eta kontuan hartzen dela gaitasun ekonomikoa, hobariei begira.

razonable. No se ha dado tiempo a los grupos ni se ha tenido en cuenta la opinión de los mismos. Las modificaciones en ese caso son libres por parte del ayuntamiento. Critica que no se dé más apoyo a las personas con pocos recursos económicos, así como que se apoye solamente a la familia numerosa, discrimina a otros tipos de familias y también a otros colectivos como el de los autónomos.

Ibon Rodríguez incide en que el punto se refiere al impuesto de vehículos y no al contrato de basuras, manifiesta que no apoyaron el modelo de contenedor pero sí apoyaron la recogida selectiva del pliego. Respecto a las enmiendas que rechaza el PP de otros grupos porque se basan en que han copiado, manifiesta que en la enmienda presentada por EH Bildu que se refiere al coche eléctrico es un tema que solamente lo han trabajado ellos. Recuerda que el año 2016 el equipo de gobierno apoyó la actualización de las tasas y cree que desde que ha habido cambios en el grupo municipal del PP a éste le está gustando acercarse al poder aunque para ello utilicen la mentira.

Inazio Uriarte indica que las ordenanzas que se aprueben serán las que determine el Pleno y no las que determine el equipo de gobierno. Se han presentado cinco ordenanzas con una antelación de doce días y se trata de modificaciones puntuales con dos ejes claros, el apoyo a las actividades económicas y a las familias numerosas. Si el procedimiento ordinario habitual incomoda a algunos grupos les invita a que se incorporen al trabajo de modificación del mismo. Cree que las propuestas son fácilmente entendibles y se tiene en cuenta la capacidad económica para las bonificaciones.

Susana Andollok Ogasuneko zinegotziari gogorarazi dio zuzenketak egun horretako eguerdian bertan jaso direla itzulita. Familia mota bakarra hartu du kontuan, eta uste dute hori diskriminatzailea dela, egon baitaude diru-sarrera txikiagoak dituzten familiak, inolako hobaririk jasoko ez dutenak.

Susana Andollo recuerda al concejal de Hacienda que las enmiendas se han recibido traducidas hoy al mediodía. Sólo se ha tenido en cuenta un tipo de familia y creen que es discriminatorio ya que hay familias con menores ingresos que no son bonificadas.

Ibon Rodríguezek adierazi du EH Bilduk ez duela gobernu taldea gaitzesten prozedura arauak ez betetzeagatik, baizik eta EAJ-PNVk akordio bat daukalako EH Bildurekin legegintzaldi osorako tasa eta zergen gehikuntzari buruz; hala ere, akordioa hartu dute PPrekin, EH Bildurekin zegoen akordioaren izaera, behintzat, urratuta.

Ibon Rodríguez manifiesta que EH Bildu no critica al equipo de gobierno por incumplimiento de las normas de procedimiento sino porque el PNV tiene un acuerdo de vigencia para toda la legislatura con EH Bildu sobre el incremento de tasas e impustos y sin embargo acuerda con el PP, vulnerando al menos el espíritu del acuerdo que tenían con EH Bildu.

Santiago Sainzek esan du ez dela hasiko PPren zuzenketak baloratzen, baina, beste talde batek adierazitakoa ikusita, PPri adierazi dio haren zuzenketak gobernu taldearen proposamenak bezalakoak direla, nahiz eta beste talde batzuenak baztertzen dituen, neurri txikian landu omen direlako. Esan du, talde guztiekin hitz egin ez denez, alde batera geratu direla zenbait aukera interesgarri, adibidez, langile autonomoentzat, zerga presioa murrizteko.... Berriro adierazi du aberasgarria izango litzatekeela talde guztiek elkarrekin lan egitea eta, horretarako aukera eman ez denez, osoko zuzenketa aurkeztu du.

Santiago Sainz manifiesta que no pretendía a entrar a valorar las enmiendas del PP pero ante lo indicado por otro grupo manifiesta al PP que las enmiendas suyas son un calco de las propuestas del equipo de gobierno pese a que manifiesta rechazar las de otros grupos por ser poco trabajadas. Plantea que al no hablar con todos los grupos se han omitido posibilidades interesantes para los autónomos, para rebajar la presión fiscal, etc. Insiste en que sería enriquecedor trabajar conjuntamente todos los grupos y como eso no se ha posibilitado ha enmendado a la totalidad.

Jarraian, zuzenketak bozkatu dira; honako hauek izan dira emaitzak:

A continuación se procede a votar las enmiendas con el siguiente resultado:

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2911) baztertu egin da aldeko 5 botorekin (GUK eta Ciudadanos) eta kontrako 20 botorekin

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2911 es rechazada al obtener 5 votos a favor, GUK, Ciudadanos; 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu,

(EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE).

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2912) baztertu egin da aldeko boto 1ekin (Ciudadanos) eta kontrako 24 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, EH Bildu eta PSE-EE).

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2783) baztertu egin da aldeko 8 botorekin (GUK eta EH Bildu), kontrako 16 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE) eta abstentzio 1ekin (Ciudadanos).

Proposamena bozkatu eta emaitza hau izan da: aldeko 16 boto (EAJ-PNV, PP eta PSE-EE), kontrako 4 boto (GUK) eta 5 abstentzio (EH Bildu eta Ciudadanos).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

I.- Behin-behinean onetsiko da Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa. Aldaketa horren ondorioz, familia ugarien aldeko hobaria ezarriko da 4.2. artikuluaren c) letra berrian jasota dauden zenbatekoekin eta muga eta baldintzekin. Ordenantza honela geratuko da idatzita:

<<c) Zergaren kuotan hobaria izateko eskubidea edukiko dute, artikulu honetan arautzen diren zenbatekoan eta baldintzetan, 5 plaza edo gehiagoko turismo ibilgailuek, horien titulartasuna indarreko legeriarekin bat familia ugariaren aintzatespena duen kideetako batena bada eta baldin eta

PSE-EE

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2912 es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 24 votos en contra, PNV, PP, GUK, EH Bildu, PSE-EE

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2783 es rechazada al obtener 8 votos a favor, GUK, EH Bildu; 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE; 1 abstención, Ciudadanos.

A continuación se somete la propuesta a votación obteniendo el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 4 votos en contra, GUK; 5 abstenciones, EH Bildu, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

I.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica. Dicha modificación consiste en establecer una bonificación a favor de las familias numerosas en las cuantías y con los límites y condiciones recogidos en el nuevo apartado c) del artículo 4.2, que queda redactado en los siguientes términos:

<<c) Tendrán derecho a una bonificación en la cuota del impuesto, en la cuantía y condiciones que se regulan en este artículo, los vehículos turismo de 5 o más plazas cuya titularidad recaiga sobre algún miembro de la familia que tenga la consideración de familia numerosa de

familia-errenta estandarizatua 40.000 eurokoa edo gutxiago bada.

Familia bakoitzeko ibilgailu bakarrak izango du hobaria jasotzeko eskubidea.

Hobari hau ez da bateragarria ibilgailu berak Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergan izango duen beste hobaririk edukitzearekin.

Hobari hau lortzeko bidezko eskabidea aurkeztu beharko da eraginak izango dituen zergaldiaren aurreko ekitaldian. Eskabide horrekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Indarreko legeriaren arabera indarrean egongo den Familia Ugariaren Tituluaren fotokopia; titulu hori Bizkaiko Foru Aldundiak jaukita egongo da.
- Ibilgailuaren ikuskapen teknikoaren txartela.
- Familia ugaria arautzen duten kideek Ogasunean aurkeztu duten errentaren gaineko azken aitorpenaren fotokopia. Familia horrek ez badauka aitorpen hori aurkezteko obligaziorik, Ogasunak jaulkitako Ziurtagiria aurkeztu beharko du, inguruabar hori egiaztatuko duena eta, halaber, errentaren zerga-datuak jasoko dituen organismo horren agiria aurkeztuko da.

Dena dela, subjektu pasiboek derrigorrez jakinarazi behar dituzte hobari honen baldintzetan eta beharkizunetan gertatuko diren aldaketak, eta aldaketa horiek ondorioak izango dituzte gertatu eta hurrengo ekitalditik aurrera.

Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du hobaria egilesteko eta

acuerdo con la legislación vigente, cuando la renta familiar estandarizada sea igual o inferior a 40.000 euros.

Se bonificará un solo vehículo por familia.

Esta bonificación no será compatible con ningún otro beneficio fiscal en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica para el mismo vehículo.

Para poder disfrutar de esta bonificación deberá presentarse la oportuna solicitud en el ejercicio anterior al periodo impositivo en que produzca sus efectos, acompañada de la siguiente documentación:

- Fotocopia del Título de Familia Numerosa en vigor conforme a la legislación vigente, expedido por la Diputación Foral de Bizkaia.
- Tarjeta de inspección técnica del vehículo.
- Fotocopia de la última declaración de la Renta presentada por los miembros integrantes de la familia numerosa en Hacienda. En caso de que no tuvieran obligación de presentarla, deberán aportar Certificación expedida por Hacienda que acredite esta circunstancia y documento emitido por el mismo organismo recogiendo los datos fiscales de la renta.

No obstante, los sujetos pasivos están obligados a comunicar las variaciones que se produzcan en las condiciones y requisitos de esta bonificación, surtiendo dichas variaciones efectos a partir del ejercicio siguiente en que se hayan producido.

La administración podrá comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos

emateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla eta aukera du subjektu pasiboak hobariak jasotzeko eskubidea egiaztatzeko beharrezkoak izango diren agiri guztiak eskatzeko.

necesarios para el otorgamiento y concesión de la bonificación y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la bonificación.

Hobariaren portzentajea honako koadro honen arabera familia ugariari familia-errenta estandarizatuaren arabera dagokiona izango da:

El porcentaje de bonificación será el que corresponda en función de la renta familiar estandarizada de la familia numerosa de acuerdo con el siguiente cuadro:

| Familia-errenta estandarizatua<br>Renta familiar estandarizada | Hobariaren portzentajea<br>Porcentaje de bonificación |
|---|---|
| 10.000 eurora arte<br>Hasta 10.000 euros | % 90% |
| 10.001 eurotik 20.000 eurora<br>De 10.001 a 20.000 euros | % 50% |
| 20.001 eurotik 30.000 eurora<br>De 20.001 a 30.000 euros | % 25% |
| 30.001 eurotik 40.000 eurora<br>De 30.001 a 40.000 euros | % 10% |

FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUAREN KALKULUA

CÁLCULO DE LA RENTA FAMILIAR ESTANDARIZADA

Familia-errenta (zerga-oinarri orokorra gehi PFEZren aurrezkiaren zerga-oinarria) zati familia-unitatearen baliokidetasun koefizientea (kasuan kasuko koefizienteak batuko dira) eragiketa egitearen emaitza:

Será el resultado de dividir la renta familiar (base imponible general más la base imponible de ahorro del IRPF) por el coeficiente de equivalencia de la unidad familiar (se sumarán los coeficientes que correspondan):

| **Subjektu pasiboa**<br>**Sujeto pasivo** | **Koefizientea**<br>**Coeficiente** |
|---|---|
| Ezkontidearekin edo izatezko bikotearekin<br>Con Cónyuge o pareja de hecho | 1,5 |
| Ezkontiderik edo izatezko bikoterik gabe | |

| | |
|---|---|
| Sin cónyuge o pareja de hecho | 1,3 |
| Genero-indarkeriaren biktima | |
| Víctima de violencia de género | 1,3 |
| Familia-unitatearen seme-alaba bakoitza | |
| Cada hijo/a integrante de la unidad familiar | 0,3 |
| Familia-unitatearen kideren batek => % 33ko desgaitasuna badauka | |
| Alguno de los miembros de la unidad familiar con discapacidad =>33% | 0,3 |

Horrenbestez, ordenantzaren testua proposamen honen eranskinean jasotako baldintzetan idatziko da.

En consecuencia el texto de la ordenanza queda redactado en los términos del anexo a esta propuesta.

II.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, 4.2.c) artikuluko hobaria eskatzeko epeari dagokionez izan ezik, kasu horretan BAOn argitaratuko denetik eskatu ahal izango delako. Hori guztia Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez da.

II.- Dicho texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos a partir del 1 de enero de 2019, salvo el plazo para solicitar la bonificación del artículo 4.-2.-c) que podrá instarse a partir de la publicación en el BOB. Todo ello en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

III.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki oholean, 30 egun naturalez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

III.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

IV.- Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere. Azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen.

IV.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B, publicándose además anuncios de la misma en uno de los diarios de mayor difusión, y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga

lugar la publicación del último anuncio.

V.- Erreklamaziorik ez aurkeztekotan, erabakia, ordura arte behin-behinekoa, behin betikotzat joko da. Horretarako ez da beharrezkoa izango Osoko Bilkuraren erabakia.

V.- En el caso de que no se presenten reclamaciones se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

**7.- JARDUERA ETA INSTALAZIOEKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO ETA ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO TASAK ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

**7.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS POR ACTIVIDADES E INSTALACIONES Y APERTURA DE ESTABLECIMIENTOS.**

Proposamena irakurri ondoren, Inazio Uriartek horren edukia azaldu du: jarduera bat ezartzeko egungo baldintzak hobetu nahi ditu, hobaria gehituz eta, azken berrikuspenera egokitu ondoren, katastro-balioaren muga ere gehituz.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte que explica el contenido de la misma, que busca mejorar las condiciones actuales para implantar una actividad con incrementos de la bonificación y con un incremento del límite del valor catastral tras su adaptación a la última revisión.

Paula Amievak adierazi du positibotzat jotzen duela negozioei ekiteko edozein laguntza eta berak babestu egingo duela. Uste du ez dela nahikoa, eta Osoko Bilkurak 2017ko azaroko bileran adierazitakoa, hau da, udal gaietan talde guztiek parte hartzea, abiarazteko eskatu du. Oposizioko taldeek ez dauzkate gobernu taldearen baliabideak, eta, gainera, lortutako erabakiak beste alderdi batzuen proposamenak baztertzea dakarrela gaitzetsi du. Osoko Bilkuraren erabakiak errespetatzen badira, horiek guztiak errespetatzeko eskatu du.

Paula Amieva manifiesta que cualquier ayuda para emprender negocios le parece positiva y la apoyará. Cree que es insuficiente y pide que se ponga en marcha lo indicado en el Pleno de noviembre de 2017 que buscaba la participación de todos los grupos en las cuestiones municipales. Los grupos de la oposición no tienen los mismos medios que el equipo de gobierno y critica que además el acuerdo logrado incluye el rechazo a las propuestas de otros grupos. Pide que si se respeta al Pleno en sus acuerdos, se respete en todos ellos.

Ibon Rodríguezek adierazi du lortutako akordioa iluna dela, eta badirudi kasu honetan asmoa dela laguntza bat

Ibon Rodríguez manifiesta que el acuerdo logrado es oscuro y parece que en este caso se pretende buscar una

bilatzea merkatari guztientzat. Hala eta guztiz ere, egungo saltegiak eta enpresak beren-beregi baztertzen dituzte, hobariak saltegi berrietarako baino ez baitira, egungoak kontuan hartu gabe. Horregatik, hobarien eremua handitzeari buruzko zuzenketa aurkeztu dute.

ayuda para todos los comerciantes pero marginan expresamente a los actuales comercios y empresas ya que las bonificaciones solo son para los nuevos comercios, sin tener en cuenta los actuales y por eso han planteado la enmienda de ampliar el ámbito de las bonificaciones.

Inazio Uriartek esan du Udalak hainbat tresna dituela jada ezarrita dauden saltegiak babesteko, adibidez, norgehiakokako diru-laguntzak (horiek gehitu eta hobetu dira), zuzeneko jarduketak, pertsonak kontratatzeko diru-laguntzak, lehendik dauden jardueretarako aholkularitza eta abar. Tresna horiek tasetatik datozenak baino indartsuagoak dira. Uste du gaur egungoak babesten direla eta horiek baztertzen direla esatea gezur hutsa dela. Proposamena beste tresna bat da, eta kasu zehatz batean eguneratu egin da, hobariak gehituta. Pozik agertu da, udalerriko langabezia-tasa % 10etik beherakoa izan delako 2017an, Getxoko Udalaren jarduketek ere horri eragin diotela.

Inazio Uriarte indica que el ayuntamiento tiene diferentes herramientas para apoyar el comercio ya establecido como son las subvenciones en concurrencia, que se han ampliado y mejorado, actuaciones directas, subvenciones a contratación de personas, asesoramiento a actividades existentes, etc. Estas herramientas son más potentes que las derivadas de las tasas. Cree que se apoya a los actuales y decir que se les margina es mentir. La propuesta es una herramienta más y se ha actualizado en un supuesto concreto aumentando las bonificaciones. Se felicita porque la tasa de paro en el municipio el año 2017 ha bajado del 10% y en ello también ha incidido las actuaciones del Ayuntamiento de Getxo.

Santiago Sainzek adierazi du bere ustez errespetu-falta dela Ogasuneko zinegotziak diru-laguntzez hitz egitea, zerga ordenantzez egin beharrean, eta uste du tasak murriztu behar direla. Egungo merkatariak kontuan hartzen ez direla esan du. Osoko zuzenketa bat aurkeztu dute, egungo saltegiak kontuan hartzen ez direlako, eta, zerga beherapenak ez ezik, berrientzako babesa hobetzeko zuzenketa partziala ere proposatu du.

Santiago Sainz indica que le parece una falta de respeto que el concejal de Hacienda hable de subvenciones en vez de ordenanzas fiscales en vez de reducir los tipos. Indica que no se tiene en cuenta a los comerciantes actuales. Han pesentado una enmienda a la totalidad porque no se tiene en cuenta a los comercios actuales y plantea rebajas fiscales y una enmienda parcial para mejorar el apoyo a los nuevos.

Ibon Rodríguezek adierazi du ez duela gezurrik esan. Izan ere, ordenantza aztertu besterik ez du egin, eta bertan beren-beregi baztertzen dira egungo

Ibon Rodríguez manifiesta que no ha dicho ninguna mentira sino que lo que ha analizado es la ordenanza y en la misma se margina expresamente a los

merkatariak. Horrenbestez, gezurra esan duena Ogasuneko zinegotzia izan da. Beste erakunde batzuei dagozkien dominak jartzea gaitzetsi du. Gainera, Getxon errealitatea da gero eta saltegi gutxiago eta gero eta lonja itxi gehiago daudela, eta Udalak erantzukizunaren zati bat baduela. Berriro adierazi du ordenantzak beren-beregi baztertzen dituela egungo merkatariak, ezarpen berriak baino ez baititu kontuan hartzen.

actuales comerciantes, por lo que el que miente es el concejal de Hacienda. Critica que se pongan medallas que les corresponden a otras instituciones y la realidad en Getxo es que cada vez hay menos comercios y más lonjas cerradas y el ayuntamiento tiene parte de responsabilidad. Insiste que la ordenanza margina expresamente a los actuales comerciantes considerando solamente las nuevas implantaciones.

José Luis Landak esan du ordenantza behin bakarrik egiten diren jarduerei eta irekitzeei buruzkoa dela.

José Luis Landa manifiesta que la ordenanza es de actividades y aperturas que solo se practican una vez.

Jarraian, zuzenketak bozkatu dira; honako hauek izan dira emaitzak:

A continuación se procede a votar las enmiendas con el siguiente resultado:

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2910) baztertu egin da aldeko boto 1ekin (Ciudadanos), kontrako 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE) eta 4 abstentziorekin (GUK).

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2910 es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK.

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2909) baztertu egin da aldeko boto 1ekin (Ciudadanos), kontrako 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE) eta 4 abstentziorekin (GUK).

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2909 es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2785) baztertu egin da aldeko 8 botorekin (GUK eta EH Bildu), kontrako 16 botorekin (EAJ-PNV, PP eta PSE-EE) eta abstentzio 1ekin (Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2785 es rechazada al obtener 8 votos a favor, GUK, EH Bildu; 16 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE; 1 abstención, Ciudadanos.

Proposamena bozkatu eta emaitza hau izan da: aldeko 20 boto (EAJ-PNV, PP, GUK eta PSE-EE), kontrako 4 boto (EH Bildu) eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

A continuación se somete la propuesta a votación obteniendo el siguiente resultado: 20 votos a favor, PNV, PP, GUK, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

I.- Jarduera eta instalazioekin lotutako zerbitzuak eskaintzeagatiko eta establezimenduak irekitzeko tasak arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa behin-behinean onestea. Aldaketa horren xedea da gaur egun ezarpen berriko enpresa edo merkataritza jarduerak hasten dituzten zergadunentzat aurreikusita dagoen hobariaren mugak, katastro-balio jakin bat duten lokaletan egiten badituzte eta ekintzaile berriak badira, handitzea. Ondorioz, ordenantzaren 7. artikulua honela geratuko da:

I.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por la prestación de servicios por actividades e instalaciones y apertura de establecimientos. Dicha modificación tiene por objeto ampliar los límites de la bonificación actualmente prevista a favor de los contribuyentes que inician actividades empresariales o comerciales de nueva implantación, en locales con un valor catastral determinado, e impulsadas por nuevos emprendedores. En consecuencia, el artículo 7 de la ordenanza queda redactado en los siguientes términos:

<<7. artikulua.— Ez da inolako salbuespenik izango Tasaren ordainarazpenean.

<<Artículo 7.- No se conocerá exención alguna en la exacción de la Tasa.

Tasaren kuotan %75eko hobarirako eskubidea izango dute, ezarri berriak diren eta ekintzaile berriek Getxolanen gainbegirapena eta honen aldeko aurretiko txostena dituztela bultzatutako enpresa edo merkataritzako jarduerak hasten dituzten zergadunek, 225.000 euro baino gutxiagoko katastro-balioa duten lokaletan. Hobaria onuradunak eskatu beharko du. Honek, eskabidearekin batera, Ekintzaileentzako Hobariaren Inprimakian jasotako agiriak ere aurkeztuko ditu.

Tendrán derecho a una bonificación del 75% en la cuota de la tasa, aquellos contribuyentes que inicien actividades empresariales o comerciales de nueva implantación, en locales cuyo valor catastral no supere los 225.000 euros, e impulsadas por nuevos emprendedores bajo la supervisión y previo informe favorable de Getxolan. La bonificación deberá ser solicitada por el beneficiario quien acompañará la solicitud de la documentación recogida en el Impreso de Bonificación a Emprendedores/as.

Hobari hori aplikatzeko, eskaera aurkeztu beharko da lizentzia eskatzean edo aurretiazko jakinarazpena egitean, edo gehienez egindako likidazioaren aurkako

La solicitud para la aplicación de esta bonificación deberá presentarse al tiempo de solicitar la licencia o efectuar la comunicación previa de la actividad, o como máximo antes de la finalización

errekurtsoa jartzeko epea amaitu baino lehen.

Hobari hori ez da establezimenduan ondoren egiten diren erreformei edo handitzeei aplikatuko.>>

Ordenantzaren testua proposamen honen eranskinean jasotako baldintzetan idatziko da.

II.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

III.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren lehen adierazitako 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki-taulan, 30 egun baliodunez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

IV.- Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere. Azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen.

V.- Erreklamaziorik ez aurkeztekotan, erabakia, ordura arte behin-behinekoa, behin betikotzat joko da. Horretarako ez da beharrezkoa izango osoko bilkuraren erabakia.

del plazo de recurso contra la liquidación practicada.

Esta bonificación no se aplicará a posteriores reformas o ampliaciones del establecimiento.>>

El texto de la ordenanza queda redactado en los términos del anexo a esta propuesta.

II.- Dicho texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

III.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

IV.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B, publicándose además anuncios de la misma en uno de los diarios de mayor difusión, y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del último anuncio.

V.- En el caso de que no se presenten reclamaciones se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

**8.- HIRIGINTZA ZERBITZUENGATIKO, OBRA LIZENTZIAGATIKO ETA BESTE ZERBITZU TEKNIKO BATZUETAKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Inazio Uriartek adierazi du proposamenak saltegi eta bulegoetarako higiezinen egoera hobetu nahi duela, ordenantzan jasotzen diren tasei dagokienez.

Ibon Rodríguezek adierazi du EH Bilduk proposatu dituen zuzenketek berekin dakartela etxebizitzaren problematikari buruzko neurriei heltzea, etxebizitzen zaharberrikuntzari eragitea eta alokairurako diren etxebizitzetarako hobaria handitzea. 2786 zenbakiaren erregistratu zuten zuzenketa kendu dutela adierazi du.

Santiago Sainzek berriro esan du beharrezkoa izango zatekeela ordenantza guztiak batera berrikustea, herritarrek horretan parte hartuta. Proposamak ez ditu landu zenbait gai, adibidez, oztopo arkitektonikoak, irisgarritasuna eta bestelako jarduketak; eta, beste kolektibo batzuk aipatu ez direnez, osoko zuzenketa bat aurkeztu du.

Jarraian, zuzenketak bozkatu dira; honako hauek izan dira emaitzak:

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2906) baztertu egin da aldeko 5 botorekin (GUK eta Ciudadanos) eta kontrako 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE).

**8.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR SERVICIOS URBANÍSTICOS, LICENCIAS DE OBRAS Y OTROS SERVICIOS TÉCNICOS.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte que manifiesta que la propuesta plantea mejorar la situación de los inmuebles dedicados a comercios y oficinas respecto a las tasas que se recogen en la ordenanza.

Ibon Rodríguez manifiesta que las enmiendas que plantea EH Bildu suponen abordar medidas sobre la problemática de vivienda, incidir en la rehabilitación de vivienda y ampliar la bonificación a viviendas que se destinen al alquiler. Manifiesta que retiran la enmienda que tenían registrada con el número 2786.

Santiago Sainz insiste en que hubiera sido necesaria una revisión conjunta de todas las ordenanzas con participación ciudadana. La propuesta olvida temas como las barreras arquitectónicas, la accesibilidad y otro tipo de actuaciones y ante el olvido de otros colectivos ha procedido a plantear una enmienda a la totalidad.

A continuación se procede a votar las enmiendas con el siguiente resultado:

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2906 es rechazada al obtener 5 voto a favor, GUK, Ciudadanos; 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2918) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu), kontrako 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK eta PSE-EE) eta abstentzio 1ekin (Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2918 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 20 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE; 1 abstención, Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2920) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2920 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos.

Jarraian, irizpena bozkatu da; honako hauek izan dira emaitzak: aldeko 20 boto (EAJ-PNV, PP, GUK eta PSE-EE), kontrako 4 boto (EH Bildu) eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

A continuación se procede a votar el dictamen que obtiene el siguiente resultado: 20 votos a favor, PNV, PP, GUK, PSE-EE; 4 votos en contra EH Bildu, 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

I.- Hirigintza zerbitzuengatiko, obra eta lizentziagatiko eta beste zerbitzu tekniko batzuetako tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa behin-behinean onestea. Aldaketa proposamenaren xedea orain aurreikusitako hobaria ekintzaile berrien alde zabaltzea da, hobari fiskala komertzio edo bulego erabilerako lokalak gaitzeko obra guztietara iristeko, katastroko araudian ezarritako arauen arabera, baldin eta katastroko balioa ez bada 225.000 euro baino gehiago.

I.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por servicios urbanísticos, licencias de obras y otros servicios técnicos. Dicha modificación tiene por objeto ampliar la bonificación actualmente prevista a favor de los nuevos emprendedores de forma que el beneficio fiscal se refiera a todas las obras de habilitación de locales de uso comercial o de oficinas, de acuerdo con los usos establecidos en la normativa catastral, siempre que su valor catastral no supere los 225.000 euros.

Horrenbestez, 7.C) 3º artikulua honela idatzita geratuko da:

En consecuencia, el artículo 7.C) 3º de la ordenanza queda redactado en los siguientes términos:

<<C).- Ondoren aipatzen diren obrak egiteko eskatzen diren obra lizentziek

<<C).- Gozarán de una bonificación del 50% sobre la cuota resultante de las

edo aurkezten diren aurretiazko komunikazioek %50eko hobaria izango dute kuotaren gainean:

….

3.- 225.000 euro baino gehiagoko katastroko balioa ez duten merkataritza-erabilerako lokalak edo bulegoak habilitatzeko, araudi katastralean ezarritako erabileren arabera. Hobaria aplikatzeko interesatuak eraikinaren zenbaki finkoa agerian jarri behar izango du eskaeran.”>>

licencias o comunicaciones previas de obra que se soliciten o presenten:

…

3º.- Para la habilitación de locales de uso comercial o de oficinas, atendiendo a los usos establecidos en la normativa catastral, cuyo valor catastral no supere los 225.000 euros. Para la aplicación de esta bonificación el interesado deberá hacer constar en la solicitud el número fijo del inmueble.>>

Ordenantzaren testua proposamen honen eranskinean jasotako baldintzetan idatziko da.

El texto de la ordenanza queda redactado en los términos del anexo a esta propuesta.

II.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

II.- Dicho texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

III.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren lehen adierazitako 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki-taulan, 30 egun baliodunez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

III.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

IV.- Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere. Azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen.

IV.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B, publicándose además anuncios de la misma en uno de los diarios de mayor difusión, y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga

lugar la publicación del último anuncio.

V.- Erreklamaziorik ez aurkeztekotan, erabakia, ordura arte behin-behinekoa, behin betikotzat joko da. Horretarako ez da beharrezkoa izango osoko bilkuraren erabakia.

V.- En el caso de que no se presenten reclamaciones se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

**9.- ZABORRA BILDU, GARRAIATU ETA TRATATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

**9.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR RECOGIDA DE BASURA, TRANSPORTE Y TRATAMIENTO.**

Mozioa irakurri ondoren, Ibon Rodríguezek adierazi du aurkeztutako proposamenean birziklapena baztertu egiten dela. EAJ-PNVri dagokionez, larriagoa da. Izan ere, EH Bildurekin hitz egin zuen edukiontzi marroiari eta hori sortzen ari zen problematikari buruz, eta EAJ-PNVk esan zuen gai hori landu beharko litzatekeela lehenik eta behin Hondakinen Foroan. Dena den, proposamena Osoko Bilkurari aurkeztu zaio zuzenean, foro horretan landu gabe. Arazo larria da, aurreikusitako birziklapen tasak betetzen ari ez direlako eta aukera bat galtzen ari delako aurkeztutako proposamenaren bidez gaikako bilketa sustatzeko. Tarifei dagokienez, esan dute gutxieneko soldata eta pentsioak ikaragarri gutxi handitu direla, eta EH Bilduk gutxieneko soldata eta pentsio handiagoak eskatu ditu, EAJ-PNVk hori baztertu badu ere Eusko Legebiltzarrean. Gaitasun ekonomikoarekiko erreferentzia eta birziklapena XX handitzea proposatu dute. Sarrera-erregistroko 2787 zenbakia zuen zuzenketa kendu dutela adierazi du.

Tras darse lectura a la moción interviene Ibon Rodríguez que manifiesta que en la propuesta presentada se margina el reciclaje. En el caso del PNV es más grave ya que estuvieron hablando con EH Bildu acerca del contenedor marrón y la problemática que estaba generando y el PNV indicó que habría que tratar esa cuestión en primer lugar en el Foro de Residuos y esta propuesta se ha presentado directamente al Pleno sin que se trate en dicho foro. Lo grave es que no se están alcanzando las tasas de reciclaje previstas y se pierde una oportunidad para incentivar la recogida selectiva con la propuesta presentada. Respecto a las tarifas indican que el salario mínimo y las pensiones han subido de forma irrisoria y EH Bildu ha pedido más salario y pensiones mínimas que el PNV ha rechazado en el Parlamento Vasco. Plantean incrementar la referencia a la capacidad económica y también propone XX el reciclaje. Manifiesta que retiran la enmienda con registro de entrada 2787.

Enrique Olasok esan du, GUKen

Enrique Olaso interviene en nombre de

izenean, enpresen ezarpena bultzatu behar dela eta, horregatik, aurkeztutako proposamenetako batzuk babesten dituzte, nahiz eta beste batzuen falta nabaritu. Kasu horretan, adierazi dute hondakinak arazo larria direla eta beste modu batean landu behar direla. 2020an ez dira lortuko birziklapenari buruzko aurreikuspenak, eta hondakinen sorrera murrizteko eta hondakinak birziklatzeko neurriak babestuko lituzkete. Aurkeztu diren neurriak lardaskeria hutsa dira, eta abstenitu egingo dira, baina, PPren zuzenketa, familia mota bakarrarentzako hobariak proposatzen dituena, ikusita, zuzenketa onartuz gero, proposamenaren aurka agertuko dira.

GUK para decir que hay que potenciar la implantación de empresas y por eso apoyan algunas de las propuestas presentadas pero echan en falta algunas otras. En este caso, indican que los residuos es un problema grave que hay que tratar de otra manera. No se va a llegar el año 2020 a las previsiones de reciclaje y apoyarían medidas para reducir la generación de basuras y el reciclaje de los residuos. Estas medidas presentadas son una chapuza y se iban a abstener pero vista la enmienda del PP, que plantea bonificaciones únicamente a un tipo de familia, si esta enmienda se admite, se opondrán a la propuesta.

Santiago Sainzek esan du kasu horretan ere zerga presioa txikiagotu zitekeela. Ezarpen berriei bakarrik on egitea gaitzesten du, lehendik dagoena alde batera uzten baita. Talde guztiek lan egin behar dutela nabarmendu du, eta EAJ-PNVk kasu bakoitzean akordioak ezkutuan lortzea gaitzetsi du. Osoko zuzenketa bat eta partziala den beste bat proposatu dituzte, hobekuntzetan sakontzeko asmoz.

Santiago Sainz indica que en este caso también se podría haber aminorado la presión fiscal. Critica que solo se beneficie a las nuevas implantaciones obviando a lo que existe. Insiste en la necesidad del trabajo de todos los grupos y critica que el PNV pacte de tapadillo en cada caso. Han planteado una enmienda a la totalidad y otra parcial para profundizar las mejoras.

Joseba Arregik adierazi du proposamenak ez daukala zerikusirik bilketa sistemarekin eta zerbitzutik ez datozen kontu zehatz batzuk aipatzen dituela. Hondakinen Foroan zerbitzuaren berezko kontuak lantzen ari direla gogorarazi du, eta 2022an Getxo % 50era heldu behar dela zehaztu du.

Joseba Arregi manifiesta que la propuesta nada tiene que ver con el sistema de recogida y se refiere a unas cuestiones concretas no derivadas del servicio. Recuerda que se está trabajando en el Foro de Residuos sobre cuestiones propias del servicio y concreta que Getxo tiene que llegar al 50% en el año 2022.

Ibon Rodríguezek erantzun du gobernu taldeak eztabaida itxi duela proposamenaren bidez, ez baitzaio logikoa iruditzen ordenantzan aldaketa berriak egitea hilabete gutxiren buruan.

Ibon Rodríguez replica que el debate lo cierra el equipo de gobierno con esta propuesta ya que no ve lógico venir en pocos meses con nuevos cambios de la ordenanza. No le parece muy leal

Ez zaio oso zintzoa iruditzen talde guztiei ezkutatzea gai horri buruz talde bakar batekin negoziatzen ari zela, eta, halaber, ez dago ados birziklapena eta gaikako bilketa ez azpimarratzearekin, tasa arautuz sustatu baitaitezke. Ezarpen berrietarako hobariak ematen dira, nahiz eta gaikako bilketaren eta birziklapenaren politika gauzatzeko konpromisorik ez hartu.

ocultar a todos los grupos que se está negociando sobre este tema sólamente con un grupo y también está en desacuerdo con no incidir en el reciclaje y la recogida selectiva que pueden incentivarse desde la regulación de la tasa. Se bonifican nuevas implantaciones aunque no se comprometan a llevar una política de recogida selectiva y reciclaje.

Inazio Uriartek erantzun du proposamenak jarduera ekonomikoa bultzatu nahi duela eta PPren zuzenketarekin osatuko dela, familia ugarientzako hobariei dagokienez. Proposamenak ez du eragozten, beste planteamendu batzuetatik aurrera (adibidez, Hondakinen Forotik etor daitezkeenak), zerga ordenantzan aldaketa berriak proposatzea.

Inazio Uriarte replica que la propuesta busca el fomento de la actividad económica y que se va a complementar con la enmienda del PP respecto a las bonificaciones a familias numerosas. Esta propuesta no quita que a partir de otros planteamientos, como los que puedan derivarse del Foro de Residuos, se propongan nuevas modificaciones a la ordenanza fiscal.

Ibon Rodríguezek Ogasuneko zinegotziari erantzun dio demokraziaren ikuspegi oso murriztua duela, gobernu taldearen proposamena oposizioko zuzenketak bezain zilegia baita. Gobernu taldeak ezarpen berriak bakarrik ukitzen dituen proposamena aurkeztu du, gehi PPk familia ugariei buruz egindako proposamena, baina ez ditu bere gain hartzen beste proposamen batzuk, adibidez, EH Bilduk birziklapenari lotuta zaborren tasan hobariak egiteari buruz proposatu duena. Gobernu taldeak ezin du sinetsi demokrazia berari ondo iruditzen zaiona baino ez denik.

Ibon Rodríguez replica al concejal de Hacienda indicando que tiene una visión muy reducida de la democracia ya que tiene tanta legitimidad la propuesta del equipo de gobierno como las enmiendas de la oposición. El equipo de gobierno ha traído una propuesta que solo afecta a las nuevas implantaciones y además la propuesta del PP sobre las familias numerosas, pero no asume otras propuestas como las que plantea EH Bildu de bonificaciones en la tasa de basura vinculadas al reciclaje. No puede creer el equipo de gobierno que la democracia solo es lo que le parezca bien al equipo de gobierno.

Enrique Olasok adierazi du, bere ustez, helburuak hartu behar direla aintzat, eta, GUKen iritziz, proposamen hori hondakinen politikaren aurka doa, eta ez horren alde. Getxon zenbait erabaki hartu dira, hondakinen politikaren bidez lortu nahi den helburuari ez

Enrique Olaso interviene indicando que cree que hay que mirar los objetivos y en la opinión de GUK esta propuesta va en contra y no a favor de la política de residuos. Hay decisiones que se han adoptado en Getxo que son criticadas por no ayudar a la finalidad que se

laguntzeagatik kritikatu direnak: tasa neurri handian merkatzen bada, zabor gehiago sortzea eragin daiteke. Uste du gaia aztertu behar dela.

persigue con la política de residuos, si se abarata mucho la tasa puede generar una mayor producción de basura. Cree que hay que estudiar el tema.

Jarraian, zuzenketak bozkatu dira; honako hauek izan dira emaitzak:

A continuación se procede a votar las enmiendas con el siguiente resultado:

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2907) baztertu egin da aldeko boto 1ekin (Ciudadanos), kontrako 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE) eta 4 abstentziorekin (GUK).

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2907 es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK.

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2908) baztertu egin da aldeko boto 1ekin (Ciudadanos), kontrako 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE) eta 4 abstentziorekin (GUK).

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2908 es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK.

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2798) onetsi egin da aldeko 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE), kontrako 4 botorekin (GUK) eta abstentzio 1ekin (Ciudadanos).

*enmienda del PP, nº registro entrada 2798 es aprobada al obtener 20 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 votos en contra, GUK, 1 abstención, Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2917) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2917 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE; Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2923) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2923 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2924) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2924 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2925) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2925 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu; 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE, Ciudadanos.

Jarraian, Batzordearen irizpena, onetsitako PPren zuzenketaren edukia gehitu duena, bozkatu da; honako hauek izan dira emaitzak: aldeko 16 boto (EAJ-PNV, PP eta PSE-EE), kontrako 8 boto (GUK eta EH Bildu) eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

A continuación se procede a votar el dictamen de la comisión con la incorporación del contenido de la enmienda aprobada del PP, obteniendo el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 8 votos en contra, GUK, EH Bildu; 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

I.- Zaborra bildu, garraiatu eta tratatzeagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa behin-behinean onestea.

I.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por recogida de basura, transporte y tratamiento.

Horrenbestez, 5.2 B) artikulua honela idatzita geratuko da:

En consecuencia, el artículo 5.2 B) de la ordenanza queda redactado en los siguientes términos:

<<B) Tarifa murriztuak zenbait taldeentzat:

<<B) Tarifas reducidas para determinados colectivos:

1. Lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,3 baino gutxiagoko urteko diru-sarrerak jasotzen dituzten zergadunei aplikatu ahal zaien tarifa. Egoera hori urtero egiaztatu beharko dute, urtarrilean, eta dagozkion egiaztagiriak erantsi beharko dituzte: 0 euro.

1. Tarifa aplicable a aquellos contribuyentes que obtengan ingresos anuales inferiores a los que correspondan al salario mínimo interprofesional por 1,3, circunstancia que deberán justificar anualmente, en el mes de enero, adjuntando la documentación acreditativa correspondiente: 0 euros.

2. Bi urtez aplika daitekeen tarifa murriztua, jardueraren edo, hala badagokio, irekitzearen aurretiazko jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita, ezarpen berriko

2. Tarifa reducida aplicable durante dos años, contados a partir de la fecha de la comunicación previa de la actividad o la apertura, en su caso, a aquellos contribuyentes que inicien actividades

enpresa jarduerak edo jarduera komertzialak hasten dituzten zergadunei, 225.000 euro baino gutxiagoko katastro-balioa duten lokaletan, eta ekintzaile berriek bultzatutakoak. Getxolanek jarduera horiek gainbegiratuko ditu eta horren aldeko aurretiazko txostena egin beharko du. Lehenengo urtean, % 75eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean. Bigarren urtean, % 50eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean.

empresariales o comerciales de nueva implantación, en locales cuyo valor catastral no supere los 225.000 euros, e impulsadas por nuevos emprendedores bajo la supervisión y previo informe favorable de Getxolan. Durante el primer año se aplicará una reducción del 75% sobre la tarifa general correspondiente. Durante el segundo año la reducción será del 50% sobre la tarifa general correspondiente.

Ekintzaile berrien tarifa murriztua aplikatzeko, interesdunak beren-beregi eskatu beharko du eta bere izaera egiaztatu beharko du Getxolanek, hala badagokio, eskatutako dokumentazioa aurkeztuz.

Para aplicar la tarifa reducida de nuevos emprendedores será preciso que el interesado lo solicite expresamente y acredite su condición presentando la documentación exigida, en su caso, por Getxolan.

3. Tarifa murriztua, indarrean dagoen legeriaren arabera familia ugariaren titularrak diren subjektu pasiboei aplikatu beharrekoa, familia-errenta estandarizatua 40.000 euro edo gutxiago denean. Tarifaren murrizpen hori familia ugariaren ohiko etxebizitzari baino ez zaio aplikatuko; hartara, familiako kide guztiak higiezin horretan erroldatuta egon beharko dira.

3. Tarifa reducida aplicable a aquellos sujetos pasivos que tengan la condición de titulares de familia numerosa de acuerdo con la legislación vigente, cuando la renta familiar estandarizada sea igual o inferior a 40.000 euros. Esta reducción de tarifa se aplicará exclusivamente a la vivienda habitual de la familia numerosa, para lo cual todos los miembros de la misma deberán estar empadronados en dicho inmueble.

Subjektu pasiboek baldintza eta betekizunetan gertatzen diren aldaketen berri eman beharko dute murrizpen hori jaso ahal izateko. Administrazioak ofizioz egiaztatu ahalko du betekizunak betetzen direla, eta subjektu pasiboak tarifa murrizteko eskubidea duela frogatzeko behar diren agiri guztiak aurkezteko agindu ahal dio.

Los sujetos pasivos están obligados a comunicar las variaciones que se produzcan en las condiciones y requisitos para beneficiarse de esta reducción. La administración podrá comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos y requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la reducción de tarifa.

Zerga kuota ateratzeko, tarifa orokorrari familia ugariaren familia-errenta estandarizatuaren arabera dagokion murrizpen portzentajea aplikatuko zaio, koadro honen eredura:

La cuota tributaria será el resultado de aplicar sobre la tarifa general correspondiente el porcentaje de reducción que corresponda en función de la renta familiar estandarizada de la familia numerosa de acuerdo con el siguiente cuadro:

| **Familia-errenta estandarizatua/** ***Renta familiar estandarizada*** | **Murrizpenaren portzentajea/** ***Porcentaje de reducción*** |
|---|---|
| 10.000 euroraino/ *Hasta 10.000 euros* | % 90 |
| 10.001 eurotik 20.000 euroraino/ *De 10.001 a 20.000 euros* | % 50 |
| 20.001 eurotik 30.000 euroraino/ *De 20.001 a 30.000 euros* | % 25 |
| 30.001 eurotik 40.000 euroraino/ *De 30.001 a 40.000 euros* | % 10 |

**FAMILIA ERRENTA ESTANDARIZATUAREN KALKULUA**

***CÁLCULO DE LA RENTA FAMILIAR ESTANDARIZADA***

Familia-errenta (zerga oinarri orokorra gehi PFEZaren aurrezpenaren zerga-oinarria) familia-unitatearen ekibalentzia koefizientearekin zatitzearen emaitza izango da (koefiziente egokiak batuko dira):

*Será el resultado de dividir la renta familiar (base imponible general más la base imponible de ahorro del IRPF) por el coeficiente de equivalencia de la unidad familiar (se sumarán los coeficientes que correspondan):*

| **Subjektu pasiboa /** ***Sujeto pasivo*** | **Koefizientea/** ***Coeficiente*** |
|---|---|
| Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin / *Con Cónyuge o pareja de hecho* | *1,5* |
| Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe / *Sin cónyuge o pareja de hecho* | *1,3* |
| Genero indarkeriaren biktima / *Víctima de violencia de género* | *1,3* |
| Familia-unitateko ume bakoitza / *Cada hijo/a integrante de la unidad familiar* | *0,3* |
| Familia-unitateko kideetakoren batek desgaitasunik badauka: =>% 33/ *Alguno de los miembros de la unidad familiar con discapacidad =>33%* | *0,3* |

Murrizpen horren aplikazioa subjektu pasiboak eskatu beharko du eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

La aplicación de dicha reducción deberá ser solicitada por el sujeto pasivo presentando la siguiente documentación:

- Tarifa murrizteko eskaera-idazkia.
- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak luzatutakoa.
- Familia ugariko kideek Ogasunean aurkeztutako azken errenta aitorpenaren fotokopia. Ez badute errenta aitorpena egin beharrik, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, baita erakunde berak egindako dokumentua ere, errentaren datu fiskalak jasotzen dituena>>.

- Escrito de solicitud de reducción de tarifa.
- Título de familia numerosa expedido por la Diputación Foral de Bizkaia
- Fotocopia de la última declaración de la Renta presentada por los miembros integrantes de la familia numerosa en Hacienda. En caso de que no tuvieran obligación de presentarla, deberán aportar Certificación expedida por Hacienda que acredite esta circunstancia y documento emitido por el mismo organismo recogiendo los datos fiscales de la renta.

4. Tarifa murriztuaK aplikatzeko, tasaren subjektu pasibo dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du eskatzaileak (Ur Partzuergoarekin egindako kontratuaren kopia edo titular gisa ageri den ordainagiri baten kopia).

4. Para la aplicación de las tarifas reducidas, el solicitante deberá aportar la documentación que acredite su condición de sujeto pasivo de la tasa (copia del contrato con el Consorcio de Aguas o de un recibo en el que figure como titular).

5. Tarifa-murrizpen bat baino gehiago aplikatzeko betekizunak betetzen direnean, subjektu pasiboarentzat onuragarriena dena baino ez da aplikatuko.

5. *Cuando concurran los requisitos para la aplicación de más de una reducción de tarifas, se aplicará únicamente la más beneficiosa para el sujeto pasivo.*

Aurreko tarifetan azaltzen diren kuotak ezin dira murriztu.>>

Las cuotas señaladas en las Tarifas precedentes tienen carácter irreducible.>>

Ordenantzaren testua proposamen honen eranskinean jasotako baldintzetan idatziko da.

El texto de la ordenanza queda redactado en los términos del anexo a esta propuesta.

II.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren

II.- Dicho texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia en cumplimiento de lo dispuesto en los

16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

III.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren lehen adierazitako 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki-taulan, 30 egun baliodunez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

III.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

IV.- Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere. Azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen.

IV.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B, publicándose además anuncios de la misma en uno de los diarios de mayor difusión, y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del último anuncio.

V.- Erreklamaziorik ez aurkeztekotan, erabakia, ordura arte behin-behinekoa, behin betikotzat joko da. Horretarako ez da beharrezkoa izango osoko bilkuraren erabakia.

V.- En el caso de que no se presenten reclamaciones se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

**10.- ESTOLDERIAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

**10.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR ALCANTARILLADO.**

Teresa Escalante aretotik irten da.

Sale del salón Teresa Escalante.

EH Bilduk adierazi du sarrera-erregistroko 2792zenbakia zuen zuzenketa kendu dutela.

Por parte de EH Bildu se indica que se retira la enmienda presentada con número de registro de entrada 2792.

Proposamena irakurri ondoren, ez da hitzaldirik egin, eta, horrenbestez, zuzenketak bozkatu dira; honako hauek izan dira emaitzak:

Tras darse lectura a la propuesta, no habiendo intervenciones se someten a votación las enmiendas con el siguiente resultado:

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2904) baztertu egin da aldeko 5 botorekin (GUK eta Ciudadanos) eta kontrako 19 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE).

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2904 es rechazada al obtener 5 votos a favor, GUK, Ciudadanos, 19 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE.

*Ciudadanosen zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2905) baztertu egin da aldeko boto 1ekin (Ciudadanos), kontrako 19 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE) eta 4 abstentziorekin (GUK).

*enmienda de Ciudadanos, nº registro entrada 2905 es rechazada al obtener 1 votos a favor, Ciudadanos; 19 votos en contra, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK.

Teresa Escalante osoko bilkuren aretora sartu da.

Entra en el salón de sesiones Teresa Escalante.

*PPren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2801) onetsi egin da aldeko 20 botorekin (EAJ-PNV, PP, EH Bildu eta PSE-EE), kontrako 4 botorekin (GUK) eta abstentzio 1ekin (Ciudadanos).

*enmienda del PP, nº registro entrada 2801 es aprobada al obtener 20 votos a favor, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 4 votos en contra, GUK, 1 abstención, Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2916) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2916 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE; Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2926) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2926 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE; Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2929) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2929 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE; Ciudadanos.

*EH Bilduren zuzenketa (sarrera-erregistroko zk.: 2928) baztertu egin da aldeko 4 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 21 botorekin (EAJ-PNV, PP, GUK, PSE-EE eta Ciudadanos).

*enmienda de EH Bildu, nº registro entrada 2928 es rechazada al obtener 4 votos a favor, EH Bildu 21 votos en contra, PNV, PP, GUK, PSE-EE; Ciudadanos.

Jarraian, irizpena, Alderdi Popularraren zuzenketa onartzearen ondorioz gehitutako aldaketa duena, bozkatu da, eta onartu egin da aldeko 16 boto jaso baititu (EAJ-PNV, PP eta PSE-EE), kontrako 8 boto (GUK eta EH Bildu) eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

A continuación se somete a votación el dictamen con la modificación introducida al haberse admitido la enmienda del partido popular, siendo aprobada al obtener 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 8 votos en contra, GUK, EH Bildu; 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

I.- Estolderiagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa behin-behinean onestea.

I.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por alcantarillado.

Horrenbestez, 5.2 B) artikulua honela idatzita geratuko da:

En consecuencia, el artículo 5.2 B) de la ordenanza queda redactado en los siguientes términos:

<< B) Tarifa murriztuak zenbait taldeentzat:

<<B) Tarifas reducidas para determinados colectivos:

1. Lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,3 baino gutxiagoko urteko diru-sarrerak jasotzen dituzten zergadunei aplikatu ahal zaien tarifa. Egoera hori urtero egiaztatu beharko dute, urtarrilean, eta dagozkion egiaztagiriak erantsi beharko dituzte: 0 euro.

1ª. Tarifa aplicable a aquellos contribuyentes que obtengan ingresos anuales inferiores a los que correspondan al salario mínimo interprofesional por 1,3, circunstancia que deberán justificar anualmente en el mes de enero, adjuntando la documentación acreditativa correspondiente: 0 euros.

2. Tarifa murriztua, indarrean dagoen legeriaren arabera familia ugariaren titularrak diren subjektu pasiboei aplikatu beharrekoa, familia-errenta estandarizatua 40.000 euro edo gutxiago denean. Tarifaren murrizpen hori familia ugariaren ohiko etxebizitzari baino ez zaio aplikatuko; hartara, familiako kide guztiak higiezin horretan erroldatuta egon beharko dira.

